

bidegileak



Jesus Guridi (1886-1961)

Egilea:

SABIN SALABERRI

Musikaririk ospetsuenetakoa

Euskal Herriak eman duen musikaririk ospetsuenetako bat da, zalantzarik gabe, Jesus Guridi Bidaola. Arabako Aldundiak argitaratutako liburuxka batean irakurtzen dugunez, musikari mirestu honek «zenbait hamarkadetan musika disziplina ugari egin zuen, sinfoniatik hasi ta zarzuelara, operatik edo zinemako musikatik pasatuz, bere bizitzan ikuspunturik sentikorrenak izan zirenak inoiz ahaztu gabe, organista edukiarena eta Euskal Herriko abestiaren sorpena eta egokikuntza».

Belaunaldi berezi batean koka genezake Guridi. Bera izan zen, Usandizaga eta Aita Donostiarekin, Frantzian, Bel-

gikan eta Alemanian europar musikaren iturrrietan edan ondoren, gure euskal musikari ordezkari zala eman ziona.



Jesus Guridi (1886-1961)

Haurtzaroa

Ferenc Liszt hil zen urte berean, 1886an, jaiok dira euskal musikari ospetsuak izango ziren Juan Gisasola, Gregorio Arziniega, Pedro San Juan, José Gonzalo Zulaika *Aita Donostia*, José Franco eta Jesus Guridi. Urtebete beranduago jaioko zen Joshemari Usandizaga, Guridiren lagun eta adiskide kuttuna.

Guridi irailaren 25ean jaio zen Gasteizen «Florida» kaleko 36. zenbakian. Done Mikel Arkaingeru parrokian bataiatua, orduko ohi-tura zenez, *Jesús Luis Formerio* izen korapilatsua ezarri zioten.


Arabar, bizkaitar, gipuzkoar eta nafar, lau hego euskal probintzietan oinarritutako jatorria zuen Jesus Guridik. Aita, Lorenzo Guridi Area, gernikarra zen, eta ama, Trinidad Bidaola Ledesma, Iruñekoa. Xabier Guridi, aitona, Arrasatekoa zen, eta amona, Nicasia Area, Gasteizkoa; amaren aldetik, ordea, Luis Bidaola, segurarra, eta Celestina Ledesma, Tafallakoa. Beraz, «Lau Probintzietako» odola zeraman Jesus Guridik zainetan.

Bazuen, bestalde, musikarako jarduna bere arbasoengan. Berraitona, Nicolas Ledesma, Bilboko Donejakue elizan kapera maisu eta organista izan zen XIX. mendean. Honen ala-



Oroitgarrizko plaka jaiotetxean

ba, Celestina Ledesma, aitaren musika bideak jarraituz, konposatzailea eta piano irakaslea izan zen; bere senarra, Luis Bidaola, Ledesma aitagarrebaren ordekoa izan zen Bilboko Donejakue basilikako organoan. Familiaren giroari eutsiz, Trinidad Bidaola, Jesusen ama, pianista trebea zen; eta honek ere musikaria hartu zuen senartzat: Lorenzo Guridi bibolinista nabarmena. Bistan denez, jatorritik zetorkion Jesus Guridiri musikarako joera. Baina norik asma zezakeen orduan, Jesus Guridi izango zela, urteak geroago,




Nikolas Ledesma berraitonaren eta Luis Bidaola aitonaren ondorengo Donejakue elizako organoan?

Txikitatik hasi zen musikarako gaitasuna erakusten. Aita eta amarengandik, hau da, etxetik irten gabe, ikasi zituen musikaren lehen urratsak, bost urterekin pentagramadun paperetan bere lehenengo asmakizunak zirriborratzen zituelarik. Pianorako zuen gaitasun berezia.

Ez zen Gasteizen luzaroan bizi izan. Oraindik txikia zela, familia Zaragozara aldatu zen eta handik gutxira, Madrilera. Hiri horietan jaso zuen Guridik lehen eskola. Baina beste gauzak ikasten zituen artean, ez zuen bere musikarako zaletasuna alde batera utzi. Madrilen, zorionez, Valentin Arin ordiziarra aurkitu zuen armonia maisu eraginkorra. Azkar asko jabetu zituen musika idazteko lehen ikasgaiak eta hamaika urterekin, mutil koskor bat oraindik, bazituen zenbait obratxo idatzirik. Guriditarrek Madrilen kantari famatu bat, Emilio Garcia Soler, baritonoa, zuten ezagun. Abeslari honek, Guridi haurraren zer-nolakoak ikusiz, abesti bat konposatzeko eskatu zion. Esan eta izan, berarentzat idatzi zuen Jesusek erromantza eder bat. Badirudi Garcia Soler kantariak sarritan abestu ohi zuela Guridiren erromantza goiztiar hura. Ez hori bakarrik: Guridi txikia eraman zuen behin eta berriz «El Apolo» zeritzan antzokira. Hantxe jaio zen, segur asko, Guridiren antzoki lirikorako joera.



Omenaldia Gasteizen. 1914



«Quintanilla» hotelean bazkaria (1914)

Euskal Herrian berriz

Mende batetik bestera pasatzean, Guriditarrek Madril atzean utzi eta Bilborantz itzuli ziren. Bizkaiko hiriburuan Ledesmaren ondokoa izateak bazuen zer ikusirik, maisu zaharren izena miretsia eta gogotan baitzen oraindik Bilbon. Lorenzo Guridik «Arriaga» antzokiko orkestran aurkitu zuen tokia, eta poliki-poliki Guriditarrei hiriko ateak irekitzen hasi zitzaizkien.

Lorenzo Guridik adiskide zintzo bat aurkitu zuen Arriaga Antzokiko orkestran: Lope Alaña, biolinista eta Bilboko Laukote Elkartearen fundatzailea. Gizon eraginkor honek Jesus Guridi semebitxitzat hartuz, musika sakonaz lagundu zion. Guridik berak kontatzen zuen: «Nire oroitzapen urrun eta ahantzezin artean, Bilboko Udaletxea gogoratzen dut. Lope Alaña zen bertako diruzaina. Nik bere bulegoan bisitatzen nuen... esku artean nerabilen konposaketaren bat kontsultatze... edo Philharmonikaren kontzerturen bat irazkintzeko... Pepe Orueta eta biok joaten ginen (udaletxera)...on Lopek bibolin ikasgaia eman ziezagun. Pepe... ordu bietako trenean etortzen zen... nik zubian itxaroten nion... makinaren ke-aldia aurpegian hartzeak jostarazten ninduelako... Hil-kutxatxoan antzeko gure bibolin maletatxoekin zeharkatzen genituen Arenala eta Sendeja. Ikasgaia bukatu ta gero, Kreszentzia andreak, Loperen emazteak, atorlepo ta ttattar luzeak jazten zizkigun...».

«Gelatxoa»

Lope Alañak bere begiko zuen mutiko hura «Gelatxoa» («El Cuartito») zeritzan toki hautatura sartu zuen. Aterpe hau «Arenal» kalean zegoen, 8. zenbakiko behegainean. Txoko honetan Bilboko kultura munduan mugitzen ziren gizon handienak elkartzen ziren egunero: Zubiria kondea, Juan Kortazar, Jose Sainz Basabe, Alfredo Etxabe, Xabier Arisketa, Leon Urriza eta abar. Hiriko kultura eta musikari buruzko saioak azpijokatzen zituzten.

Hamabi urte besterik ez zituela, Jesus Guridi aterpe jakintsu horretan babestu zen Lope Alañak erakarrita. Kultura eta musika giro egokiaz gain, laguntza ugari zegoen Guridirentzat «Gelatxoa» izeneko gordelekuan. Hain goi mailako entzuleentzat pianoan gero konposatzaile handia atzematen zuten zenbait musika-une zuzen eta itxuroso jo zituen: bitxi eder hauek Leipzig-eko «Breitkopf & Härtel» etxeak *Quatorce morceaux* tituluarekin argitaratuko zituen handik urte batzuetara.

Txoko hartan Guridi gazteak, beste nortasun handiko gizonen artean, beretzat garrantzi handikoa izango zen José Sainz Basabe aurkitu zuen. Gizon famatu hau, Guridi bezala, arabar jatorrikoa zen, haurtzaroan, Gasteizko «San Pedro» elizako koruan abestua; Madrilen eta Erroman musika ikasketak sakondu ondoren, Bilbora lurreratu eta gutxira,

Nikolas Ledesmaren adiskide sendo egin zen; bera da 1894an Bilboko *Udal Musika Banda* eraiki eta 30 urtetan zehar zuzendu zuena; bide batez, *Udal Akademiako* eta *Musika Kontserbatorioko* irakaslea izan zen, azken zentro honen zuzendaritza 1924tik 1948raino bereganatuz. Guridi ezagutu eta berehala, mutilaren nolakotasuna egiaztatuz, babestu eta musika jakintzan laguntzeaz gain, Bizkaitar Institutuan kontzertuak antolatu zizkion.

Konposatzaile eta kontzertista goiztiarra

«Gelatxo»an aurkitu zituen Guridik giro aproposa eta maisu eskuzabalak. Lope Alañak eta Sainz Basabek, besteak beste, bere konposatzaile eta pianista sena erakusteko aukerak sortu zizkieten.

Urtero, Done Zeziliaren jai egunean, Philharmonika Akademian kontzertuak ospatzen ziren. Hauetako emanaldi baterako eta Akademiako koruak kanta zezan, Juan Carlos Kortazarrek




Gasteizko udaletxeko balkoian

Guridiri abesti bat konposatzeko eskatu zion: «Zuk nahi duzun moduan egin eta musikaz bakarrik arduratu; hitzak nik ipiniko ditut gero». Orduantxe jaio zen *Así cantan los chicos* konposaketaren lehen zirriborroa.

Mendearen hasieran «Lore Jokoak» ospatu ziren Bizkaiko hiriburuan, Miguel Unamuno jaien mahaiburu zelarik. Musika arloan Jesus Guridik, hamalau urteak bete gabe, kantu eta pianorako «Txalupan» abestiarekin «Plazido Allende» saria irabazi zuen.

Bilboko Philharmonia Elkarteak kontzertu bat antolatu zuen 1901eko urtarrilean Bizkaitar Institutuaren areto nagusian. Emanaldiaren

bigarren parte osoa Guridirentzat izan zen. Iragarkiak honela presentatzen zuten hamalau urteko artista handia: «Jesus Guridi, konposatzaile ta pianista gaztea, Lorenzo Guridi, Arriaga Antzokiko orkestra maisuaren semea». Iguripena handia izanik, arrakasta ez zen txikiagoa izan. Honela zioen handik egun batzuetara Resurrección M.^a Azkuek: «Bihar-ko artisten artean, oraintsu harrিতuta utzi ginduen aur miragarri, Alosien opari naharo hontan, ditut kontzentratuta nire itxaropenak». Aurkezpen kontzertuko arrakasta sutsua kontutan hartuz gero, bi entzunaldi gehiago antolatu behar izan ziren: bata Bilbon eta bestea Donostian.



Guridiren eskuz idatzia

Euskal musika xx. mendearen sarreran

Europa osoan, batik bat inguruko herrialdeetan, musika giro berri bat sortu zen XIX. mende erdian. Italia, Frantzia, Alemania eta Britainia izan ziren ordura arte Europako musika landu zuten nazioak, musika euren ekintza eskusiboa izango balitz bezala. Erromantizismoaren ondorioz, ordea, ekintza hori inguruko herrialdeetara zabaldu zen eta ordura arte isilik egonak ziren zenbait herrialdek, Errusiak, Txekiak, Norvegiak eta abarrek, musika arloan sartu zuten muturra.

Momentu hartan euskal musika Madrilera italiar eraginaren menpean



Jesus Guridi (1936)

aurkitzen zen. Baina XIX. mendea bukatu eta XX.era pasatzean, bide berriak irekitzeko asmoak sortu ziren Euskal Herrian. Federico Sopena madrildarrak honela deskribatu zuen egoera: «Madril wagnerismo eta zarzuelaren eztabaidarekin sor dagoen artean, Euskal Herria unibertsaltasun ahalegin ikaragarria ari da egiten. Musika taldeak, musikal zereginenez benetan arduratuak, materialki eta egunerari ari dira musika egiten... Eurak eratutako Philharmoniko Lagunarteen bide direla,



Euskal musikariak

europar musikari sarrera, premiazkoegia izanik ere, ematen zaio. Eta hau dena musika pedagogia deituko genukeen laguntzaz, eskolatan musikarako arreta sortuz, musika bizia eginez, ikasleen artean musika bultzatuz... Hau dela eta, talde hauek konposatzaileengano kontu berezia dute, Guridi eta Usandizagarengano europar kontua. Belaunaldi honen eta hurrengoaren euskal konposatzaileak ezer baino lehen europarrak izango baitira. Europar ahalegina izango da *Amaia*... Europartasun lehia honek... ez du ahazten... herritasunaren poza, baina herritasunean hertsatu gabe, baizik eta bere alderdi li-

rikoena, eresiazkoena bilatuz, benetako europar formak eraikitzeke. Benetako nazionaltasuna bilatu, europar mosaiko musika-lean inoren kalte gabe kokatzeko».

Oldar berri honek bultzatuta, xx. mendearen lehenengo hamarkadan euskal gazte taldetxo bat aurkitzen dugu Europako lurraldeetan, musika ikasi nahian: Gabiola, Azkue, Zulaika *Aita Donostia*, Guridi, Usandizaga... Jesus Guridi eta Aita Donostia, 1886an jaioak, eta Joshemari Usandizaga, urtebete gazteagoak, Euskal Herrian itxuratzen dute momentu horretan European egiten den musikaren lehen saioa.

Europako ikastaroa

Denen begikoa, etorkizun handikoa, musikari gazte onartua, Tomas Zubiriaren laguntzaz, Parisera abiatu zen Jesus Guridi 1904an, «Schola Cantorum» zeritzan erakundearen musika ikasketak sakontzeko asmoz. Vincet D'Indy ospetsua zen eskola famatu hartako irakasle eta zuzendaria. Bere klaseetan elkar-ganatu ziren momentu berean hiru euskaldun aipagarri: Azkue, Usandizaga eta Guridi.

«Schola Cantorum» zentroan Guridik pianoa, armonia eta kontrapuntoa sakondu zituen; eta, azpimarratzeko gauza, hantxe sortu zen beretzat aurrerantzean lanbide nagusia izango zitzaion organorako zaletasuna. Egina-halean ikasten zuen; ordu guztiak gutxi ziren partiturak irakurtzeko, instrumentazioaren zer-nolakoak aztertzeko... Bere konposaketako azterketa eskolako onena izan zen eta Vincent D'Indy-ren goretziak jaso zituen; maisuak ikasleen aurrean hiru aldiz jo zuen ariketa pianoan, beste lan guztiak baino askoz hobea zela baieztatuz.

Parisko ikasketak gainditu ondoren, Guridi, oraindik ikastaro garaian zelarrik, Belgikara iragan zen eta geroago Alemaniara. Azkuek aipatutako bi irakasleren jakituria nahi zuen edan. Aparteko maisuak ziren biak: Joseph Jongen eta Otto Neitzel.

Joseph Jongen Bruselako kontserbatorioko irakasle eta zuzendaria zen eta oso goi mai-



Brontzezko bustoa. (Erkoreka)

lako izena zuen konposatzaile eta organisten munduan. Nortasun handikoa idaztean, ber-jabetasuna ez zuen inoiz galtzen eta ohiko joera guztiei txiri egiten zien. Berarekin organoa eta konposaketa landu zuen Guridik. Ospe handiaren jabe zen momentu hartan Ysaye biolinista belgikarra, Sarasate nafararren lehiakidea. Badirudi Ysaye berberak Guridi *Elegia* idaztera animatu zuela. Garai berekoak dira *Soka laukote bat*, *Paysage*, *Nostalgia* eta *Fantasia*.

Guridiren hurrengo pausoa Alemaniara izan zen, Kolonian instrumentazioa lantzeko Otto Neitzel irakaslearekin. Maisu oso berezia zen Neitzel eta ikasketak aire zabalean ematea gustatzen zitzaion. Benetako aholkularia izan zen Guridirentzat; elkarrekin joaten ziren Munichera, antzokiak ikustera eta Wagnerren operak bere balioan eta benetakotasunean erakartzera.

Neitzelekin bere ikasgoko ibilbidea amaitutzat eman zezakeen Guridik. Maletan bazeukan musika paperezko pisu astuna; buruan eta bihotzean, ordea, gauza berri asko egiteko asmo eta gogoia.

Etxean berriz

Atzerrian ikasi ondoren Bilbora itzultzean, «Gelatxo»-ko adiskideek garaile baten agurra eta harrera eman zioten Guridiri. «Santos Juanes» elizako organista izan zen lehen-dabizi, eta gero Donejakue basilikan, Nicolas Ledesma berraitona eta Luis Bidaola aitona-
ren ondorengoa izan zen organoan. Laster utzi zituen atzean arbasoak, bere jotze eta inprobisapenekin entzuleak liluratuz. «Koral Lagunartea»k zuzendaritza eskaini zion; Guridi gazte oldartsuak abesbatzari indar berria barruratu zion eta eres sorta handitu zuen, herri abestiekin aberastuz; hobekuntza



Gasteizko «Jesus Guridi» kontserbatorioan. Federico Sopeñaren hitzaldia



Kontserbatorioko «Urrezko Liburuan» izenpetzen



Maria Jesús Guridi bere aitari begira

nabaria izan zen eta lan honen ondorioz, Koralak arrakasta garbia lortu zuen Bilbon eta Madrilen emandako kontzietoetan.

Ikasitakoarekin baliatuz, musika irakaskuntzako lanari ez zion uko egin. Sainz Basabe izan zen, gehien bat, bide horretatik sartu zuena; antzinako babestaile honek aspaldian ziharduen bereziki irakaskuntza munduan eta Guridiren laguntza paregabea probetxatu nahirik, kontserbatorioko armonia klaseen ardura proposatu zion.

Baina konposaketa zen Guridiren helburu nagusia. Txikitatik erakutsia zeukan dohain berezi hau. Bere *Quatorze morceaux pour piano* Breitkopf & Härtel etxeak argitaratuak

zituen Bruselan 1905ean. Konposaketa bokazio hau bilakatzeko asmoz joan zen printzipalki Paris, Brusela eta Koloniarara. Hiri horietatik itzultzean lan politak, nahiz eta oraindik eskola lanak izan, zekartzan poltsan. Bilbon jarraitu zuen, denborarik galdu gabe, bere sortzaile joera; lurreratu eta berehala jaiotzen ziren konposaketa berriak. Aipatzekoak dira Korala Lagunartearentzat landu zituen «Euskal abesti» sailak.

Guridirentzat 1908 izan zen oinarrizko urtea. Urtarrilaren 26an Bilboko Philharmonikan *Así cantan los chicos* estreinatu ziren. Manuel de Falla maisuaren iritziz, «obra honek, berak bakarrik, autoreak fama hilezina eskuratzea merezi du».



Gasteizko «Jesus Guridi» kontserbatorioan



Venancio del Val eta Jesus Guridi

Lana eta bizitza

Mirentxu 1910eko maiatzaren 31n Bilboko «Campos Elíseos» antzokian antzeztu zen lehen aldiz. Maitasun aurrestitiak ezinezkoa egiten duen bizitza baten kontenplazio huts eta garbia erakusten du euskal idilio atsegin honek. Guridik ez zuen 22 urte besterik. Geroago, esperientziak ikuspuntu berri hornitu zuenean, Guridik partitura jorrratu eta zuzendu zuen; baina hasierako izaera eta kutsu lirikoa ez zen inolaz ere aldatu. Lan ederra beti da misterioa; sinpletasun eta birfinketaren fusio edo urtzeak benetakoa misterioa sortzen du hemen.

Mirentxu Bilbon antzeztu ondoren eta estreinaldiari esker, gure musikariari aurkezpen


berrietarako ateak ireki zitzaizkion. Handik bost urtetara, 1915ean, *Leyenda vasca* orkestrarako poema ederra aurkeztu zen lehen aldiz Bilbon. Madrilgo Arte Ederren Akademiak synphoniko konposaketen txapelketa bat antolatu zuen 1915 urtearen bukaeran. Hirurogeita hamabost lanek hartu zuten parte lehiaketan. Epaimahaia zorrotz aritu zen eta lehenengo saririk ez zuen eman; bigarrena Guridiren *Una aventura de Don Quijote*-rentzat izan zen. Obra hau Philharmonika Orkestrak estreinatu zuen 1916ko azaroan, Perez Casas zuzendariak gidatuta.

Tartean gure musikaria hamar urtetan zehar aritu zen, 1910etik 1920ra, *Amaia* operaren sorkuntzan. Lan eder hau 1920ko maiatza-

ren 22an antzeztu zen lehen aldiz Bilboko Coliseo Albia antzokian. Arrakasta borobil eta hots handikoa izanik, estreinaldia beste bost emanaldi gogoangarritan luzatu zen. *Amaia*-ren argumentuak, bihotz mindu baztuen barruko dramaren azpian estalitako jentil eta kristau zibilizazioen borroka dakar eskenatokira. Guridik kontuz eta arretaz landu zuen musika: Wagnerrengandik ikasitako arau estetikoak erabiliz, pertsonaia bakoitzari bere melodia, erritmo eta instrumentazioa


lehia biziz egokitu zion. Pentsaera eta egitura zeharo bat datoz obra osoan eta autoreak konposatzaile dramatikoaren behin betiko ospea lortu zuen.

Baina Guridiren bizitza ez zen musikarako bakarrik. 1922ko uztailaren 7an, Fermin deunaren egunean, Julia Ispizua Uribe andrearekin ezkondu zen Gipuzkoan, Lezoko saindutegian. Sei seme-alaba izan zituzten, Guridi maisuari eskainitako omenaldi eta adiskidetasun adierazpen guztien hartzaileak.



Senar-emazteak (1922)





Zarzuelak

ogoratzekoa da *El Caserio* eres-antzerkiaren lehen emanaldi aipagarria Madrileko Zarzuelako Antzokian, 1926ko azaroaren 11n. Bai publikoaren eta bai kritikaren onartzea nabarmena izan zen. Kritiken aipamenak orrialde ugari beteko zigun. Shanti zaharra «Sasibil» baserriarekin lotzen zuten sustrai kutunek ikus-entzule guztien erraiak dardaraka jarri zituzten; bestalde, baserri-mina kolore berriz indartzen zuen atzerritik etorritako «Harrigorriko Txikito» txoriburuaren eta Sasibilgo Anamari zintzoaren arteko maitasun garbiak areago mugitu zituen bihotzak. Euskal Herrian batik bat, Gastei-



zen 1927ko urtarrilaren 15ean egin zen estreinaldian hain zuzen, arrakasta ez zen izan deskribatzekoa.

Arrakasta honen ondorioz, Guridik beste zarzuela pilotxo bat idatzi zuen: *La meiga* 1928an, *La cautiva* 1931n, *Mandolinata* 1934an, *Mari Eli* 1936an, *La bengala* 1939an, *Peñamariana* 1944an, eta abar.



El Caserio antzezen

Orkestra lanak

Arlo synphonikoan Guridik pausoz pauso adierazi zuen bere ahalmena. Ahots krea-zioak alde batera utzi gabe, 1915ean entzunarazi zuen Bilbon *Leyenda vasca*, eta hurrengo urtean Madrilen aipatutako *Una aventura de Don Quijote*. Gero jaioko ziren 1927ko *En un barco fenicio* eta beste batzuk. Baina denen artean, *Hamar euskal melodia* da, dudarik gabe, gehien entzuten den obra gaindiezinezkoa. Zoragarritzko lan eder hau Enrique Jordá donostiarrak estreinatu zuen, Madrileko Orkestra Sinphonikoa zuzenduz, 1941eko abenduaren 12an gaztelar hiriburuaren Mo-

numental Zineman. Guridik Jordá maisuari aitortzen zion bere hamar melodiak Liadoven *Zortzi errusiar herri abesti*-en antzekoak zirela... baina material tematikoa askoz hobe zela. Baditugu obra honi buruzko beste zenbait iritzi interesgarri. Arozamena idazlearentzat: «Doinuen aukerapena, armoniaren diztirapena, instrumentaketaren sakontasun eta grazia kontutan hartuz, niretzat obra hau gaurko espainiar musikaren artean balio-tsuenetarikoa da, eta, batez ere, euskal eredu kontsideragarriena». Federico Sopenak, berriz, honako hau idatzi zuen: «Herri doinu lerroa ez da inoiz hausten, ez bihurtzen, ezta alferrik errepikatzen; baina orkestra miragarri,



alai eta zorrotz batek melodia bakoitzaren esentziaz barneratutako izaera eta tinbre irazkina modu bikainean dakar. Ez da, hain zuzen, folkloriko aitzakiz mugatutako obra bat; kreaizailearen sustraizko intuizio bakar-rak ingura dezake honenbeste lerroan eta giroan. *Hamar euskal melodiak*, berriz diogu, espainiar musikaren lehen lerroan daude kokaturik: Guridiren aurrekotik bestelakoak, arintasun eta fantasiazko itxura berrikoak, konposatzailearen barneko bilakabidean data bat seinalatzen dute».

Guridiren orkestra kreapen zabal eta azkena *Pyrenaiko Synphonia* izan zen. Jesus Arambarrrik estreinatu zuen Bilbon Udal Orkestrarekin 1946ko otsailaren 6an. Berrogeita hamar minututik gora irauten duen lan sakon, trinko eta eraikigaitz hau, nekez agertzen da kontzertu programetan. Guridik, arazo honekin konturatuz, partitura zuzentzeko erabakia hartu zuen. Esan eta egin, Arambarriri erakutsi zion berriztatzearen zirriborroa, adiskidetasun nabaria baitzegoen bi «Jesus» hauen artean. Aranbarrrik, Joaquin Rodrigoren

iritziz, beste inork ikusten ez zuena irakurtzen zuen partituretan eta erantzun ebakilea eman zion Guridiri: «Sinfonia honetan ez da nota bat kentzekorik. Jatorrizko bertsiio bete eta osoa errespetatu behar da». Guridik, nahiz eta zuzentze lana alferrik egin zuela pentsatu, gogo onez baitetsi zuen Aranbarriren erabakia.

Gerardo Diegorena izan zen maisuari gehien gustatu zitzaion kritika: «Azken orduko musika zaleek, *Hamar euskal melodia* zirela eta Guridi nekez ezagutzen zutenek, orkestra idilio eszenikoaren olerkaria zela bazekiten. Baina bihotz paisaiaren gozotasunak gordetzen zituen grina leize ikaragarriak ez zituzten ezagutzen. Gainera etorri zitzaizkien indar boteretsua, enbata, erauntsiaren ondoren, txunditurik eta jipoiturik gelditu omen ziren.



Jesus Guridi diploma bat ematen Carmelo Benaolari

Mendi tontorrekin ezin daiteke jolastu. Ezta denak ez du zertan izan behar artzain olerkia, txistu eta danbolina, txakolinerako mahasti garratzean edo sagardorako sagardi gorrian ezpatadantza. Eta orain ez zen minioz, urrez eta bizanziar insektu estalkien distiraz argitutako koadro apaina; mendi trinko, geologiko, minerala pultsuan jaso eta Atlas bezala ondo nibelatutako bizkarrean eustea zen orain gaia... Eta espainiar musikak badu oraindanik alpetar, zebenolikatar edo musikal orografiaren meridiano eta goratasun prinzipal karpatiarrei beldur gabe aldera daitekeen sinfonia bat».





Egilea eta obra



Abestiak

Pedro Etxebarria Bravo ikertzailearen *La canción popular manchega* izeneko hitzaldira joan zen Guridi Madrilen 1949ko maiatzaren 5ean. Hitzaldia, ongi aukeratutako abesti adibideekin, interesgarria izan zen. Irteeran, ordea, Guridik adiskide bati aitortu zion: «Mancha-ko herri abestia bikaina da, baina gure euskal folklorea bezalakorik ez dago bat ere».

Guridik beti sentitu zuen euskal herri abestiaren erakarpen indartsua. Bordes, Azkue eta Donostiaren kantutegiak sakon ezagutzen zituen. Bera ere arduratu zen herri doinu bilakuntzan eta zenbait ale aurkitu zuen Aramaion eta Otxandion.

Arreta honen ondorioz, 1932an Bilboko Euskal Editorialak Guridiren *Euskal folkloreako XXII abesti* koadernoan argitaratu zuen. Aita Donostiak laudorioz bete zuen Guridiren koadernoan: «Bere lehenengo argitarapenak ezagutu genituenetik (*Así cantan los chicos delicioso hura*), musikari hau *gantzutua*, musika biltegi eta armonia tratatuetako errezeptetan aurkitzen ez den *quid divinum* bekokian markatuta daramaten artekoa dela sinetsi dugu».

Luzeegia izango litzaiguke Guridik koroentzat idatzitako titulu guztiak izendatzea. Aipatzekoa da, beraz, *Eusko irudiak*, koro eta musika banda edo orkestrarako. Itsas kutsu



Organoan

nabaria dario obra eder honi. *Boga, boga, Hator mutil* eta *Anton Aizkorri* abesti ezagunak entzuten dira bertan. Arozamenak idatzi zuen: «Efektu handiko obra —Guridi theatrale Theatroan pentsatu gabe— orfeoi eta musika banden kontzertuetan beharrezko bukaera zen».

Ahots eta pianorako ere utzi zizkigun Guridik zenbait obra eder. Aipatzekoak ditugu *Seis canciones infantiles* eta *Seis canciones castellanas*, azken hau autorearen gorenenetarikoa.

Organoa eta pianoa

Organoa izan zen Guridiren tresna kutuna. Bilboko Donejakue eta gero Madrilgo San Manuel eta San Benito elizetan izan zen organista. Irakasle bezala, Bernardo Gabiola berriztarraren ondoko izan zen Madrilgo Kontserbatorioko organo katedradun. Entzutekoa zen inprobisatzen zuenean: denbora pasatzen zitzaion berari eta entzuteko zortea zuenari. Ez zuen organorako asko idatzi. Bereiztekoak dira *Triptiko del Buen Pastor* eta *Variaciones sobre un tema vasco*.

«Triptikoa» Donostiako Artzain Onaren katedraleko organo inauguratzean jo zuen Guridik berak 1954ko urtarrilaren 20an; hiru zati ditu obrak: *Artaldea*, *Ardi galdua* eta *Artzai Ona*; musika deskriptiboa eta arduraz idatzia, zati bakoitzak bere esangura ezin hobeki adierazten du; lehen saria merezi izan zuen 1953an *Organería Española*-k iragarritako konkurtsoan.

Euskal tema baten bariazioak 1948koak dira. Edozein euskaldunentzat zeharo ezaguna da «ltsasoan» abestia. Gai hau azaldu ondoren bederatzizko bariazio bilakatzen ditu Guridik, zein baino zein entzungarriagoak. Obra hau aditzean, autore berbera inprobisatzen dagoela iruditzen zaio entzuleari.

Pianorako ere idatzi zuen Guridik pieza pila-txo bat. Aipatu dugu gorago Bruselan 1905ean argitaratutako *Quatorze morceaux pour piano*.



Organoa jotzen Madrilen

Gero jaio ziren *Danzas viejas*, *Ocho apuntes para piano* eta *Vasconia*. Hauek guztiak baino garrantzi handiagoa jantzi zuen *Homenaje a Walt Disney* fantasiak. Piano eta orkestrarako konposaketa honek Alacant-eko Udalaren «Oscar Esplá» saria irabazi zuen 1958an. Guridik aitortu zuen: «Txiki eta nagusientzat poesiaz betea eta delizia den zinema guztiz originalaren egile den Disneyri, berarengantz sentitzen dudan mirespen itzelagaitik, omenaldi hau eskaini nahi izan diot».

Hona Xabier Montsalvatgeren iritzi zorrotza: «Piano eta orkestrarako phantasia konposatzailearen testuinguru folklorikotik libratu eta forma sinphonikoari erasotzeko saialdi argienetarikoen lerroan koka daiteke. *Walt Disneyri omenaldian* Guridik marrazki animatuen filmei laguntzen dien «scherzo» iradokor horietako bat idatzi nahi izan zuen. Obrak

made in Hollywood lurrin barregarri bat du eta bere prozesu azalgarria bizia, zorrotza eta oroiterazlea da, agian oroiterazleegia; obra entzuten duenak bere soinu deskribaketa argitsuak atzemanda sentitzen du burua eta begilaguntza gabezia aurki dezake. Musika, ordea, nahiko bokantzaz agertzen da sinestarazteko konposatzailearen asmapena eta piano baliabidearen eta orkestra tinbre ahalbidearen aparteko domeinua. Lan oso galda inpresionistaren argiz jantzita dago; instrumento, erritmo eta armoniaren trataketa guztiz pertsonala da; hizkuntzan, bestalde, zorroztasunak, umoreak eta Guridiren sentimendu unibertsoko berezkoa den samurtasunak, elkarrekin jolasten dute».



Posta tinbrea (1983). Diseinua: José Díaz



Organoan

Gizatiar eta sentibera

Aurpegi desberdinak antzeman daitezke Guridiren bizitzan eta musika lanetan. Gazteta-ko agerkundeetan, Europako ikasketetan eta zenbat ekintzatan ausart azaltzen zaigun gizona, barnerakoi eta sentikor agertzen zaigu beste hainbat momentutan.

Guridi, gizalegez, nahiz eta momentu batzuetan saiatua izan, oso atsegina eta maitagarria zen. Besteak beste, orozgaintasunezkoa da elkarren artean idatzi zituzten gutun ederrren bidez ezagutzen dugun Usandizagarenako adiskidetasuna. Hain nabariak ez izanik, baita bere famili, ikasle, lagun eta inguruan bizi izan zirenenganako jarrera umil eta goxoa adosten duten adibide asko dira ezagunak.



«Jesus Guridi» eskolaren proiektua. (Julio Herrero-José Luis Catón)

Konposatzaile arloan, aztertu ditugu, alde batetik, kemen indartsu eta epikoa adierazten duten antzerki eta sinfoniko lanak. Baina hauen ondoan, beste obra asko izpiritu leun eta sentikor baten iragarle dira: haur kantak, ganbara musika, eliz abestiak... Aipatzekoak dira bere soka laukoteak, zein baino zein distiratsuagoak.

Hau zen Guridi gizona, ausarta eta, bide batez, atsegina, epikoa eta sentikorra.



Jesus Guridi

Gasteizko «Seme Kutuna»

Gasteizko Udalak, Gonzalo de Lacalle alkatearen eskutik, hiriaren «Seme Kutuna» zela egiaztatzen zuen pergamu bat eman zion Guridi konposatzaileari 1952ko urtarrilaren 26an, Pintzipal Antzokiaren agertokian. Ondoren, Jesus Aranbarrik zuzenduta, Bilboko Orkestra Synphonikoak Guridiren obraz osatutako kontzerto bat eskaini zuen. Ekitaldi berean, Federico Sopena jaunak «Alfonso X. Jakintsuaren Gurutze Handia» ezarri zion Guridiri.

Emanaldi gehiago ospatu ziren egun haietan, kontzertoak eta abar, Guridiren omenez. Besteak beste, Musika Kontserbatorioak «Jesus Guridi» izendapena gehitzea erabaki zuela eta, omenaldi berri bat antolatu zion gasteiztar musikariari.

Guridi pozik sentitu zen bere sorterrian eta sorterriarekin. Honela adierazi zuen bere hunkipena:

Nire lumatik pentagramara pasatu diren soinu harmoniatsuenak orain laburtu ahal ba nituzke, hain burutan eta maite dudan Gasteiz honen azken bazter guztiak jainko dardarez bete dezaken akorde nagusi bikainen, biribilen eta ederki ozenenean kondentsatu nahi nituzke.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagaritik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Gasteizko udal artxiboari
- «Jesus Guridi» Musika Kontserbatorioari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2005eko abendua

Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2380-4 (Lan osoarena)
84-457-2384-7

L.G.: BI - 3289-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística